

Gogoan hartu damutu baino lehen

Seguru egoteko, ☺
fidatu zure artekariarekin.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

Hileroko buletina
Nº 30 / Abuztua 2015

Aseguruak eta Carabanchelgo erortzea Egin beti zuzena.



Joan den abuztuaren 3an Duquesa de Tamames kaleko 5. zenbakiko (Madrileko Carabanchel auzoan) auzokideak etxetik aterarazi zituzten eraikina behera erori aurretik, goizeko 9etan. 1964an eraiki zuten eta Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) egina zeukan 2012an. Fatxadan konpondu beharreko akats batzuk detektatu zituzten, baina egiturazko kalterik ez zuten antzeman.

Beranduago, aurtengo ekainean bertan pitzadura sakonak ikusi zituzten hormetan. Adituen arabera, egia da "eraikinek denboraz abisatzen dutela".

Etxeko aseguruak zuten auzokideei hotel batean egoteko eguneko kalte-ordaina eman diete aseguru-etxeek. Gainerako pertsonak, berriz, Madrileko udalak birkokatu ditu.

Zorionez, ezohiko gertaera bat da hau, baina... zer gehiago gerta daiteke zure eraikinean?

Ba askoz gehiago: suteak, hausturak, urak eta fenomeno klimatologiko bortitzek, bandalismozko edo asmo txarreko ekintzek, eta makinerien matxurak eragindako kalteak eta bestelakoak.

Ez arduratu! Bizitza honetan ia gauza guztiek dute konponbidea eta arazo horiek ere bai.

"Jabekideen erkidegoko aseguruak" ez da beharrezkoa legez, baina **BAI erabat ezinbestekoa**, gauzak okertzen hasten direnean, auzokideak urduritu eta inork ez duelako bere arduraren onartzen eta azkenean, nor jasan behar du?

Horretarako asmatu zen aseguru hori, **zure jabekide-erkidegoaren ondasunen eta jabetzaren hainbat gorabehera estaltzeko.**

Zer eskatu behar zaio jabekideen erkidegoko aseguru on bati?

Zure eraikinaren beharretara egokitzea.

Hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteak estaltzeko **erantzukizun zibila izatea.**

Une oro laguntza ematea.

Aseguratutako kapitalaren balioa eguneratzea, bidezko prezioa ordain dezazun.

Gastuak ez ordaintzeagatik jabeei erreklamatzeko.

Erkidegoaren hoditeriak libratzea...

Garrantzitsua da erkidegoko jabekide gisa, edozein gorabeheraren aurrean lasaiago bizitzeko aukera emango dizun aseguru egokia izateaz arduratzea.

"Ez ginen Bora-Borara joan, baina ez genuen dirua galdu. Eskerrik asko Bidaien Deuseztapenaren Aseguruak!"

Duela 8 hilabete prestatu zenuen zure ametsetako bidaia: Bora-Boran 10 egun "dena barne" modalitatearekin. Erreserba garaiz egin zenuenez, kostu osoaren %20 aurreztu zenuen. Baina... orain, bat-batean eta laneko elkarrizketa zail baten ondoren, uko egin ezin diezaiokezun lanpostu bat eskaini dizute.

Zer gertatzen da bidaia bat bertan behera utzi behar duzunean?

Bidaien Deuseztapenaren Aseguru bat kontratatu baduzu, lasaiago egon zaitezke, **zure polizak aurreikus baitezake oraindik egin ez duzun bidaia deuseztatzegatiko gastuak estaltzea.**

Baina aseguru hori ez badaukazu, zeuk ordaindu beharko dituzu bidaiaren gastuak, kudeaketa-gastuak eta bidaia-agentziarentzat kalte-ordaina; haren zenbatekoa legez ezarrita dago eta deuseztapena egiten duzun epearen arabera izango da. %5 (15 egun lehenago) eta %25 (aurreko 48 ordutan) artekoa da.

Gainera, daukan kostuagatik interesgarri gerta dakigukeen aseguru-mota bat da.

Gomendioak

Gehienok erreserba alde aurretik egiten dugu. Hala ere, uneko euforiak askotan ezohiko deuseztapenetan pentsatzea eragozten digu. Izan ere, bidaiarien %90k ez du

Deuseztapen-asegururik kontratatzen eta gero datoz negarrak.

Zure artekari gisa, aseguru hau kontratatzea gomendatzen dizut 2 egoera hauetan:

Aurretik denbora handiz egiten duzunean erreserba.

Zure egoera konplexua denean. Laneko edo bizitza pertsonaleko une zail batean bazaude, aurretik denbora luzez zerbait erabakitzea arriskutsua izan daiteke, arrisku horiek poliza-mota honekin estaltzen ez badituzu behintzat.

Ez kontratatu "azken orduko" erreserba bat egiten baduzu. Litekeena da arazorik ez sortzea eta aseguru horietako askok poliza kontratatu duzunik bidaia deuseztatu arte 72 ordu pasatu badira soilik balio dute.

Gaixotasun larria, istripua, heriotza, lanetik kaleratzea, etxean edo negoziotan arazo larriak sortzea... Askok dira ezustean gerta daitezkeenak eta zure laneko bidaia edo bidaia pertsonala deuseztatzerantz zaitzaketenak. Ez diezaioa poltsikoari ere eragin!

Itzuli eskolara seguru



Datorren ikasturterako liburuak, umeak hazi direla-eta arropa handiagoa eta negu osoan iraungo duten zapata berriak. Gure seme-alabak eskolara itzuliko dira eta gu egunerokotasunera. Eskolara seguru joatea nahi dugu. **Oinez bazoaz**, bide laburrena ez da beti seguruena. Batzuetan komeni da pixka bat gehiago ibiltzea eta trafikoa edo gainezka dagoen bidegurutzea saihestea.

Eskolara autobusez

Espainiako ia 17.000 autobusek eramaten dituzte umeak eskolara. **Arriskutsuenak autobusera igotzen eta autobusetik jaisten diren umeak dira.** Izatez, istripuen %90 une horietan gertatzen dira, eta arretarik gabe joatea izaten da autoek umeak harrapatzearen arrazoi nagusia.

Autobusean sartutakoan, oso garrantzitsua da segurtasun-uhala lotzea. DGTren arabera *"haurren lesioen 10etik 9 saiheste zitezkeen, gailu horiek erabili izan balituzte"*.

Gurasook eskolako autobusak 16 urtetik beherakoak izatea, eskolako garraioa direla aurretik eta atzetik adierazita eramatea eta ibilgailuaren zoria irristakorra ez izatea eskatu behar dugu.

Eta oso garrantzitsua! Bidaiarien herena 16 urtetik beherakoak direnean eta desgaitasunak dituen

adingabeak daudenean laguntzaile batek joan beharko du haiekin.

Eskolara autoz

Haurrak behar bezala eserita eta segurtasun-uhala lotuta joango dira. 1,35 metro baino gutxiago neurtzen badute, jasogailuan edo haurren autorako aulkian eserita joango dira. DGTren arabera, **eusteko sistema horiek haurren heriotzaren edo lesio larrien %70 saihesten dute.**

Auto-fabrikatzaileek aulkia aurkako noranzkoan instalatzea gomendatzen dute 2 edo 4 urte bete arte. Aulki homologatuek arnes bat izan behar dute 5 ainguratze-punturekin, behealdeko lerradurak saihesteko.

Kontuz airbag-arekin! Lesio larriak eragin ditzake, zabaltzerakoan haurrak lerratzea eragiten duelako.

Eta ez ahaztu sekula datu hau: **50 km/h-ko abiaduran lotuta ez dagoen 20 kiloko haur batek aurreko kristalarekin egin dezake talka 500 kiloren baliokidea den potentziarekin.** Hortaz, beharrezkoak diren neurriak hartu.

Garrantzitsua da halaber, auto-aseguru on bat izatea, bai baitakizu noizbait erabiliko duzula eta ez duzulako sorpresarik nahi; izan ere, gehien maite dituzunak bidaiatzen dute autoan.

"Logalea gidatzean, arriskua gainean"

Abiatu zarete, bart autoa kargatu zenuen eta gaur goizeko lau eta erditan altxatu zara bidaia fresko egiteko. Denak prest.... Abian jartzen zara! Oraindik ez du eguna argitu, baina ez zaizu axola gaez gidatzea. Laster argituko du. Kontuz dabilen gidaria zara eta pare bat ordu barru gelditu eta gosaltzeko asmoa duzu. Baina... *"Kontxo... Goizeko sei eta erdiak dira eta dena itxita dago. Pixka bat gehiago.... Zazpiak. Itxita oraindik eta eguna argitzen hasi du. Beste pixka bat gehiago bidaiatu..."* - Begiak kliskatzen dituzu eta aharratsi egin.

ARRISKUA! Komeni da goizeko ordu bietatik seiak arte eta arratsaldeko ordu batetik lauak arte ez gidatzea. Gidatzeko ordurik txarrenak dira, gorputza erlaxatu egiten da, logalea iristen da eta istripu izateko arriskuak biderkatu egiten dira. Zenbateraino? Espainiako errepidetako heriotza-arrazoiengan laugarrena izan arte. Trafiko-istripuen %20-30arekin lotuta dago.

Garrantzitsuenak ez da goiz iristea, ongi iristea baizik.

Gidariekin egindako ikerketa baten arabera, atsedena eta kafea hartzeak gidatzeko erreazio-denbora hobetzen dute, errepide-tako marrak gutxiagotan zapaltzen dira eta logalearen sentsazioa jaisten da. **Nekatuta dagoen gidariak erabaki txarrak hartzen ditu. Atsedena hartzen badu eta kafea hartzen badu, erreazio-denbora %7,7 azkarragoa izango da.**

Zure aseguru-artekari gisa, gomendatzen dizut laguntzako telefonoa zure mugikorrean sartzea, edozein gorabeheraren aurrean ondo prestatuta egon zaitez.



GOMENDIO